



**2024KO OTSAILAREN 19KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko otsailaren 19an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik, Tokiko Gobernu Batzordeak, gai zerrendan ez dagoen hurrengo gaia jorratzea erabaki du: "Hirigoien kaleko 56-58 zenbakietan kokatutako bizitegi-eraikineko beheko solairuan dauden bere jabetzako lokalak Eusko Jaurlaritzari erostea".

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko otsailaren 5ean egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zenbakidun zerrenda, HOGEITA HAMAIIKA MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA BI euro ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU zentimokoa (31.722,73 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOARI 2024. URTEKO EKARPEN.-

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bertan dauden udalerriek egin beharreko 2024ko ekarpenen zehaztasuna bidali du. Bertan adierazten da ekarpen horiek eskolako inbertsioetarako eta LHko (Lanbide Hezkuntza) gastuetatik udalei dagokion zatiari aurre egiteko direla, eta baita ere esaten da ekarpen hauek biztanle kopuruaren arabera banatzen direla.

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bidalitako zehaztasunaren arabera, Lazkaoko Udalarri 2024 urtean 43.127 €-ko ekarpena dagokio.



Hau honela, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioari 2024 urtean egin beharreko BERROGEITA HIRU MILA EHUN ETA HOGIITA ZAZPI euroko (43.127 €) ekarpena onartzea erabaki du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordcak honako erabaki hauek hartu ditu:


Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 24-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta urtarrilaren 2an, astean 2 orduz etxeko garbiketa egiteko. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urtarrilaren 22tik aurrera, astelehenetik ostiralera egunean 4 orduz, zaintzailea errekuiperatu bitartean. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-03 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urtarrilaren 26tik aurrera, astelehenetik ostiralera egunean 4 orduz, laguntza pertsonala eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta otsailaren 6an, astean 2 orduz etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 18-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 18-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-016 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 51,75 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 69 da.
- 23-01-008 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 147 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik otsailera. Eman daitekeenaren % 98 da.
- 23-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 120 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-011 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 100,78 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik martxora eta lehen mailako premietarako hile-





an 80 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik martxora. Eman daitekeenaren % 100 da.

- 23-01-019 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 120 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-020 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik ekainera eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik ekainera. Eman daitekeenaren % 100 da.

V.- KIROL ETA GAZTERIA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko urriaren 23an, Antzar Korrikalariak Elkarteari 2.280 €-ko dirulaguntza ematea onartu zuen San Silbestre lasterketa antolatzeko, hau dirulaguntza osoaren lehen zatia izanik.

Orain, bigarren zatia ordaintzea proposatzen da, 2.390 €-koa hain zuzen ere.

Tokiko Gobernu Batzordeak, Antzar Korrikalariak Elkarteari 2.390 €-ko dirulaguntza ordaintzea onartu du.

VI.- HIRIGOIEN KALEKO 56-58 ZENBAKIETAN KOKATUTAKO BIZITEGI-ERAIKINEKO BEHEKO SOLAIRUAN DAUDEN BERE JABETZAKO LOKALAK EUSKO JAURLARITZARI EROSTEA.-

Udal honek, Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak diren Lazkaoko Hirigoien kaleko 56-58 zenbakietako eraikinetako beheko solairuetan dauden lokalak erosteko interesa du.

Honakoak dira lokal hauen erregistro-datuak:

- 1) Deskribapena: Hiru zenbakiko finka, Hirigoien kaleko 56 eta 58 zenbakidun atariaren artean dagoen beheko solairuko lokala, 133,90 m²-ko azalera duena.

Erregistroko inskripzioa: Tolosako 2 zenbakidun Jabetza Erregistroa, 1884. liburukia, Lazkaoko 87 liburua, 5359 zenbakidun finka.

Kargak: Kargarik gabe.

Katastroko erreferentzia: 6664158; 5176050 R.

- 2) Deskribapena: Laugarren finka: Hirigoien kaleko 58. zenbakiko atariaren eskuin aldean dagoen beheko solairuko lokala, 57,20 m²-ko azalera duena.

Erregistroko inskripzioa: Tolosako 2 zenbakidun Jabetza Erregistroa, 1884. liburukia, Lazkaoko 87 liburua, 5360 zenbakidun finka.



Kargak: Kargarik gabe.

Katastroko erreferentzia: 6664158; 5176051 C

Lazkaoko Udalak, enplegua sustatzeko helburuarekin, beharrezkotzat jotzen du interesdunen eskura jarri ahal izango diren bulegoak izatea, hasierako fasean enpresa-ekimenak martxan jartzen laguntzeko eta ahalbidetzeko.

Goiekirekin lankidetzan, zeregin horiek betetzeko, behar diren ekipamenduak dituzten bulegoak jarriko lirateke interesdun posibleen eskura.

Euskal Autonomia Erkidegoak dituen Hirigoiene kaleko 56 eta 58 zenbakietako eraikinen beheko solairuetako lokalek, jarduera horiek ezarri ahal izateko behar diren baldintzak betetzen dituzte.

Txosten juridikotik ondoriozta daitekeenez, Udalak lokal horiek zuzenean erosi ahal izango ditu, lizitazio prozedurarik egin behar izan gabe.

Soroa Arquitectos S.L.P.-ko arkitektoa den Pedro Izaskunek, lokal hauen balorazio bat egin du Udalak hala eskatuta.

Bada aurretik Jon Ezenarro Zeberio arkitekto teknikoak egindako balorazio bat, Zehazki enpresarena hain zuzen. Balorazio horretatik ondorioztatzen da 56. zenbakiko lokalak, 146,92 m²-ko azalera eraikia ducnak, 105.701,04 euroko balioa duela, eta 58. zenbakikoak, 64,35 m²-ko azalera eraikia duenak, 54.664,83 m²-ko balioa duela. Bi lokalen balioa beraz 160.365,87 eurokoa da.

Pedro Izaskun arkitektoak ontzat eman du aurreko balorazio hori.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Lazkaoko Hirigoiene kaleko 56-58 zenbakietako eraikinetako beheko solairuetan dauden lokalak, bere espedientean dagoen dokumentazioan zehaztutakoak, erostea. Erosketa prezioa FHUN ETA HIRUROGETI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO eta LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMOKOA (160.365,87 €) da.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea, erabakia behar bezala bete dadin, hartutako erabakiari dagozkion gainerako zehaztapenak egin ditzan.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ikusi dutela Lazkao Kirol Elkarteak txokoa duela Udaletxeko panelean. Baimen berezirik ba ote duten galdetzen du, beren kartelak jartzeko.

Alkateak dio ez dutela baimen berezirik, kartel bat jarri nahi dutenean baimena eskatzen dutela eta utzi egiten zaiela.






LAZKAOKO
UDALA

Ormazabalek erantzun du arautu beharko dela panel horretan jartzen diren kartelak noiz arte jarri daitezkeen.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA